

-Funtsezko jarduerak

Erabiliko dugun materiala erosita izango da, maskarillak, koltxoia... bakarrik kanapearen zatiak elkartu beharko lirateke eta ohearen atalak kokatu.

Geroago, produktua salmentan jarriko dugu web orrialdean eta saltzen den unetik ekoizten hasiko gara bakoitzaren beharretara moldatua. Ekoizpen prozesu honetan arazoren bat egongo balitz berriz ere txarto egindako pausua errepikatuko dugu, eta arazoari irteera berri bat emango diogu.

Bezero batek kexa bat jartzen badu, guk kexa hori analizatu eta egia dela balioztatzen badugu, konpontzen saiatuko gara, gainera ahalik eta lehen konponduko ditugu arazoak honelakoak egotekotan. Beste aldetik, proiektu hau estatuaren laguntza izango duenez bera ere lagunduko gaitu arazoren bat egotekotan.